



Arartekoaren ebazpena, 2010eko uztailaren 12koa. Horren bidez, Aretxabaletako Administrazio Batzarrari gomendatzen zaio ondasunen inbentarioko idazpen bat baliorik gabe utz dezan.

Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa bat bidali zuen erakunde honetara. Bertan adierazi zigunaren arabera, ez zegoen ados Aretxabaletako Administrazio Batzarraren asmoarekin, izan ere, 2009ko azaroaren 5ean jasotako jakinarazpenaren bidez, ondasunen inbentarioan 11. zk. duen "iturriaren bidezidorra eta ubidea" izeneko bidea katastroan erregistratu nahi zuela jakin izan zuen, eta beraz, egoki irizten zituen alegazioak aurkezteko epea eman zitzaion erakunde horri.

Pertsona horrek esan digu administrazio batzarrak aurkeztu duen plana ez datorrela bat errealitatearekin ezta katastro datuekin ere. Gainera, kontu hori bide jurisdikzionaletik ebatzi zen¹, eta hala, Aretxabaletako Administrazio Batzarraren uziak gaitzetsi egin ziren, bai lehen auzialdian bai apelazioan.

Arartekoak Aretxabaletako Administrazio Batzarrari eskatu zion egindako kexari buruzko informazioa helaraz ziezagun. Ildo horri jarraiki, aurrekari gisa aipatu genuen moduan, 2008. urtean 403/2008/29 kexa-espeditentea izapidetu genuen, uste genuenaren arabera, haren jabetzaren ondoan zegoen ubidearen lursaila publikoa zela aldarrikatzen zuen alboko jabeak eskatuta. Arartekoak gaiari buruzko hainbat gogoeta helarazi zizkion administrazio batzarrari.

2. Aretxabaletako Administrazio Batzarreko buruak hasierako informazio-eskaera horri eman zion erantzunaren arabera, 2009ko abuztuaren 6an Katastro Zerbitzuari eskatu zioten ondasunen inbentarioan jasota dagoen aipatu bidea (ubidea) katastroa egin zezan. Hori guztia, ekainaren 13ko 1372/1986 EDko Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 44.-46. artikuluek eta, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 6 e) artikulua ematen dizkieten ahalmenak erabiliz.

Halaber, gauzatu diren beste izapide batzuk ere aipatu dituzte. Gauzak horrela, 2009ko abuztuaren 12an, administrazio batzarrak idazki bat bidali zien inguruko jabeei, 15eguneko epean, egokiak irizten zituzten alegazioak aurkez zituzten.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiko Katastro Zerbitzuak igorritako erantzuna bidali ziguten, eta "Iturriaren bidezidorra eta ubidea" izeneko bidearen katastroa ez zela inskribatu adierazi ziguten, 1997. urtean gatazka sortu duen gaia berraztertzeko errekurtsoa, eta ondoren, erreklamazio ekonomiko-

¹ Gasteizko 3. zk.ko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren 1999ko ekainaren 10eko 170/99 Epaia eta Arabako Probintzia Auzitegiaren 1999ko ekainaren 10eko 201/99 zk.ko Epaia.



administratiboa izapidetu zirelako, eta beraz, ezingo zelako berriro ere gai berari buruzko errekurto hori jarri.

Azkenik, administrazio batzarreko buruak adierazi zuenez, aurreko aurrekarian aipatutako epaiak, erreklamatzailarekin zerikusirik izan ez zutenak, ez zirela ondasun publiko gisako katastroa egiten saiatu diren bideari (ubidea) buruzkoak.

Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta azaldutako aurrekariak aztertu ondoren, egokitzen jo dugu hurrengo gogoetak zuri helaraztea:

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, kexa zehazki zer nolako ondasun motari buruzkoa den zehaztu behar dugu, dirudenez, administrazio batzarrak bidalitako erantzuna ikusita, gaizki-ulertuak egon baitira. Azken finean, hizpide dugun ondasun hori bidezidorra, bidea, ubidea edo horien guztien arteko nahasketa den zehaztu behar dugu, bai eta inbentarioan ondasun bat gaineratzeko prozedura eta dagozkion idazpenek adierazi behar dituzten datuak ere.

Interesdunak jasotako inbentarioaren fitxaren kopiak, 1. epigrafeko (higiezinak) 13. azpitaldean (bide publikoak eta egiturak) jasotakoak, ondasuna "Iturriaren bidezidorra eta ubidea" gisa izendatzen du, eta honelaxe deskribatzen du: "*Lursaila bidezidor eta ubide batek bete zuten. Egun, ubideak turuta itxura dauka*". Honako muga hauek aipatzen dira: hasiera, Iturriko plaza; amaiera, finka partikularrak eta antzinako bidezidorra (egun galdua dago). 40 metroko luzera eta 72 metro koadroko azalera dauka (inskribatzen den bidezidorraren batez besteko zabalera aipatzen ez bada ere, 1,8 metrokoa dela ondoriozta dezakegu)

Deskribapen hori guztiz bat dator idazkariak 2009ko uztailaren 30ean Arabako Foru Aldundiari bidali zion egiaztagiriaren identifikazio datuekin. Egiaztagiri horrekin batera, administrazio batzarrak aurkeztutako idazkia ere bidali zion, "Iturriaren bidezidorra eta ubidea" izeneko **bidearen** katastroa egitea eskatzen duena. Deskribapena zehatza ez bada ere, iturrian hasi edo amaitzen den bidea dela dirudi, eta alderantziz, finka partikular batean eta egun galdua dagoen bidezidor batean hasi edo amaitzen dena. Halaber, hizpide dugun bideak "turuta-formako" ubidearekin guztiz edo zati batean bat egiten du. Administrazio batzarreko buruaren erantzunean, inbentariatutako ondasuna bide (ubide) bat dela adierazteak erabateko nahastea sortu du publikotzat jo nahi den ondasunaren inguruan.

Ekainaren 13ko 1372/1986 EDko Tokiko Erakundearen Ondasunei buruzko Araudiaren 20. artikulua ondasun higiezinaren inbentarioak adierazi beharreko datuak ezartzen ditu. Horrela, beste batzuen artean, honakoak aipatzen ditu:





- Kokapena, finka eta inguru kokatuta dauden leku zehatza adieraziz, eta landa-ingurune koetan, poligonoa eta katastro lurzatia aipatuz.
- Mugak.
- Bide publikoak direnean, bakoizpenerako beharrezkoak diren datuak azaldu beharko dira, eta bereziki, haien mugak, luzera eta zabalera.
- Erakundeari ondasuna emateko aintzat hartzen den titulua.
- Jabetza Erregistroko inskripzioaren signatura, inskribatzeko modukoa izatekotan.
- Erabilera eta hori finkatu duen akordioa.

Lehenago aipatu dugun inbentarioaren egiaztagirian antzeman daitekeen moduan, datuak osatu gabe eta eskasak dira.

Gauzak horrela, kontu garrantzitsuenak hizpide izanik, ez da agertzen ondasun hori administrazio batzarraren ondasun gisa inskribatzeko aintzat hartu beharreko titulua. Aurrekari gisa, beste kexa-espeditente baten informazioa dugu (403/2008/29), deskribatutako ondasun inbentariatuaren ekialdeko muga dauden finken titularrak aurkeztutakoa. Horri jarraiki aipatu genuenez, administrazio batzarrak jakinarazpen batean adierazi zuen, "zuk zeuk" (hau da, kexa hura egin zuen pertsona) aurkeztutako informazioaren arabera, aipatutako ubideak hiru finkek dituela muga, eta beraz, ez dagokiola horietako bati ere, eta haren titulartasuna ezin zaiola egokitu aipatutako finken jabeei.

Informazio hori ikusirik, mugakideak ondasun publikotzat jotzen zuen ubideari buruzko espeditente horretan, zera adierazi genuen:

"...ubidea inbentarioan agertzeak ez du esan nahi, berez, ubide hori bere baitan hartzen duen lurzatia titulartasun publikokoa denik.

....Administrazio batzordeak, bere esku dauden dokumentu publiko, administratibo edo judizialekin bat, argitu beharko du erretena ezarrita dagoen lurzoru zatia publikoa den edo ez. Hala balitz, beharrezko izapidetzeak egin beharko ditu ondasuna jabetza erregistroan inskribatzeko. Titulartasuna hala ez balegokio, Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia kontuan hartu beharko du (ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua), udalerrien ondasunei dagokienez udal prozedura eta ahalmenak arautzen dituen.

Araudiak, besteak beste, ikerketa eta mugaketa ahalmenak arautzen ditu, udal ondarearen babeserako. Ikerketa prozedurarako (49. artikulua eta hurrengoak) publikotasuna eskatu eta proba epe bat irekitzea beharrezkoa da, haiengan eragina duela uste duten guztiek egoki diren dokumentuak aurkez ditzaten."

Eskura dugun informazioaren arabera, ezin dugu ziurtatu administrazio batzarrak bideratu duen ikerketa prozeduran behar bezalako publikitatea egin duenik, mugakide interesdun guztiei horren berri eman dienik ezta frogara epe





egokia ireki duenik ere, kasuan eragina izan zezaketen dokumentu publiko, administratibo edo judizial guztiak espedientean gaineratuz edo, gutxienez, eztabaidagaia argitzeko garrantzia izan zezaketenak . Gure ustez, ezin da ondasun bat inbentarioan gaineratu gaia argitzen duten arlo guztiak sakonki baloratzen ez badira, eta ez da onargarria alde baten agiri batzuk bakarrik kontuan hartzea, batez ere, interesdun guztiei dagokiena egin dezaten izapidea eman ez zaienean.

Dagoeneko adierazitakoaz gain, interesdunak eskainitako agirien arabera, hizpide dugun ondasuna erreklamatzaileren izenean agertzen da Jabetza Erregistroan, eta egoera hori dagokion bide jurisdikzionalaren bidez bakarrik zuzen daiteke.

Administrazio batzarraren buruak gure informazio eskaerari emandako erantzunean ikertzeko eskumena aipatzen duen arren, deskribatutako finkaren katastroa egiteko eskaera ezin da ikerketarako jardueratzat jo, espedientea ebatzi ondoren bete beharreko izapidetzat baizik.

Mugei dagokienez, zehaztugabetasuna erabatekoa da, izan ere ez dira zehazten ekialdeko eta mendebaldeko mugak, bidearen (ubidea) zabalera, ez eta hizpide dugun finkaren alde guztietatik mugan dauden finkek titularrak ere. Aurreko deskribapena administrazio batzarrak bidalitako katastro-planoaren fotokopiarekin osatuz (dagokion datari buruzko inolako zehaztapenik gabe), dirudienez, eskuz egindako lerro eten eta itzalarekin marraztuta, inbentariatutako finka honako erreferentzien bidez deskriba genezake:


- Iparraldean, iturri publikoa. Gure ustez, baita 1132-3606-3 finka ere, ezer aipatzen ez bada ere.
- Ekialdean, 1132-3606-3 eta 1132-3606-1.
- Mendebaldean, 1132-3606-2, erreklamatzaileren finkari dagokiona.
- Hegoaldean, finka partikularrak eta antzinako bidezidorra (egun galdua dago). Planoari jarraiki, finka partikularrak 1132-3606-4 katastro-erreferentzia izango luke, eta bidezidorra, aurreko hori eta 1132-3606-1 finken artean markatutako lerro etena litzateke. Azken finka hori iparraldean geratuko litzateke eta galdutako bidezidorra, berriz, erdian.²

Honako hau da eragindako finkak dituen katastro-planoa³ :

² Aurrekarietan aipatutako epaiek adierazten duten muga horixe dela uste dugu, berehala azalduko duguna.

³ Aurrerantzean, 1., 2., 3. eta 4. finkak, planoak eta katastroaren amaierako zenbakiak zehaztu bezala.





Deskribapena erabilgarria da egoera kokatu ahal izateko eta eskura izan ditugun gainontzeko agiriak aztertzeko.

Laburbilduz: ez dago agiririk ikerketarako ekintza legez xedatutako prozeduraren arabera bideratu dela egiaztatzen duenik; inbentariatutako ondasuna xehetasun handirik gabe eta kontraesanekin deskribatzen da, izan ere, ez dago argi bidezidorra eta ubidea duen bidea den, ubidea duen bidea den, edo ubide bat besterik ez den; ez da azaltzen zein titulu hartzen den aintzat ondasuna inbentarioan inskribatzeko, eta gainera, Jabetza Erregistroan erreklamatzaileren izenean inskribatuta dago; azkenik, erabateko zehaztugabetasuna dago aipatu ondasunak mugakide dituen finka eta eremuen inguruan, bai eta horren ezaugarri zehatzen inguruan ere.

2. Bestalde, Katastro Zerbitzuak aipatzen duen 136/97 erreklamazio ekonomiko-administratiboa, administrazio batzarrak proposatutako gaia berriro ere jorratu ezin dela zehazteko erabilitakoa, erreklamatzailak aurkeztu zuen (2. finka) hurrengo lurzatiaren jabearekin batera (4. finka) 1. finkako titularrak aurkeztutako mugak aldatzeko ebazpenaren kontra (dirudienez, baita 3. finkako titularra ere).

Arabako erakunde juridiko-administratiboak, 1998ko ekainaren 30ean, erreklamazioa onestea eta mugen aldaketa ezeztatzea erabaki zuen, hau da, hiru finka mugakideen artean bidezidorra eta ubidea zegoela ukatu zuen. Katastroaren bulego kudeatzaileak argudiatutakoaren arabera, finken mugei dagokienez erreklamatzaileren tituluaren eta ondoko jabearen tituluaren artean desadostasuna dagoenez eta, bulego kudeatzaileari eskubiderik honena zehaztea ez dagokionez, egindako muga mantendu behar zuen, errealitate fisikoarekin bat egiten baitzuen, fisikoki ez bidezidorra ez eta ubidea ere ez zeudela egiaztatzean.

Nolanahi ere, hasitako espedientea, erreklamatzaileri alegazioak egiteko aukera eman ziona (nahiz eta jakinarazpena Katastro Zerbitzuari egindako eskaera baino nahiko beranduago jaso), finkaren katastroa egiteko zela, eta eskaera hori ukatu egin dela kontuan hartuta, prozedura hori amaitutzat jo beharko genuke.



3. Gasteizko 3. zk.ko Lehen Auzialdiko Epaitegiaren 1999ko ekainaren 10eko 170/99 Epaiari dagokionez, Aretxabaletako Administrazio Batzarra izan zen demandatzailea; mugaketa eta aldarrikapen ekintzak gauzatu zituen eta, aldi berean, baliogabetzeko eta erregistro inskripzioa indargabetzeko ekintzak bideratu zituen, 4. finkako titularraren kontra.

Dagozkigun ondorioetarako, administrazio batzarrak eskatu zuen zera adieraztea:

1. Aipatu bidezidor osoaren jabea dela.
2. Demandatuek bidezidor horretarako sarbidea itxi dutela eta legez kanpo hartu dutela bidezidor osoa edo froga epean zehazten den eremua.
3. Demandatuei eskatzea aipatu bidezidorra ireki dezaten eta berehala aske utz dezaten, haiek hartutako azalera demandatzailearen esku gera dadin.
4. Baliogabetasuna adieraztea eta erregistro inskripzioa indargabetu dadin agintzea. Inskripzio horretan, iparraldeko mugakide gisa demandatuen finka ezarri beharko litzateke, hau da, "Aretxabaletako Administrazio Batzarrari dagokion bidezidorra, iturri publikoraino heltzen dena" (...) jaunaren lurzatia ezarri beharrean (katastroko erreferentzia 1132-3606-1).

Epai horrek administrazio batzarraren asmoak atzera bota zituen, lekukoren baten adierazpenak kontuan hartuta (2. oinarria); izan ere, haren arabera, iturrirako bidea beste nonbaitetik zihoan, eta bidezidor hori bidea laburtzeko baino ez zen erabiltzen. Halaber, demandatuek lursaila hartu izanak eztabaidarik eragin ez duela adierazi du, izan ere, egindako froga guztiek adierazi dutenez, bidezidorra omen dena haien finkaren barnean dago (4. finka).

Bestalde, Arabako Probintzia Auzitegiaren 1999ko ekainaren 10eko 201/99 zk.ko Epaiak atzera bota zuen administrazio batzordeak aurreko epaiaren aurka jarri zuen gora jotzeko errekurtoa. Epai horrek administrazio batzarraren adierazpenari dagokio (2. oinarria). Bertan, zera azaltzen da:

"... existe acuerdo entre las partes acerca de la ubicación de la senda, siendo indiscutible su existencia aunque ahora haya desaparecido como consecuencia de su ocupación por los demandados. Según estos (ver contestación demandada) discurría por el Norte de su finca, formando parte de ella, yendo desde camino público, cruzando una finca hasta otra, y su finalidad era atajar y llegar antes a una fuente del pueblo de Arechavaleta."

Auzitegiaren epaiak hirugarren oinarrian aipatzen duenez, eskaeraren arabera (administrazio batzordearena), dirudenez demandatuek jaso duten bidezidorra ez da inoiz iturriraino joan, ubide zahar bateraino baizik. Labur esanda, epaiak azaltzen duenez, lekukoek adierazpenek bidezidorrak lehen zuen erabilera bat aipatu dute, baina titulua aipatu gabe, eta egun, ez dago horrelako bidezidorrik. Gainera, ez dago bidezidorra bertan dagoela aipatzen duen inolako administrazio





agiririk, eta administrazio batzarrak berak ekintza propioen bidez, duela bost urte bidezidorra zegoen lekura heltzeko bidea nahita itxi izana azpimarratu du.

Beraz, epai horiek ikusirik, batzarrak aldarrikatzen zuen iturriaren bidezidorra ez da egun existitzen, eta hortaz, ez da onartu 1. eta 4. finken arteko mугen aldaketa. Ildo horri jarraiki, erreklamatzaila (2. finka) prozedura honen parte ez bazen ere, administrazio batzarrak adierazitakoaren arabera, erabakigarria da hizpide dugun bidezidorra nahitaez finka horretatik pasa behar izatea iturrira heltzeko, eta beraz, bidezidorraren hasieran halakorik ez dagoela onartzen badugu, zaila liteke amaieran egongo dela pentsatzea.

Ondorioz, adierazitako moduan eta eskura dugun informazioari jarraiki, ondasunen inbentarioak sendaren inguruan egiten duen aipamena, lehenago aztertu dugun zehaztugabetasunarekin bada ere, kontraesankorra izango zen aztertutako epaiekin parekatzean, eta ez zen ulertuko ondasunaren definizioan eta deskribapenean gaineratzea.

4. Ubideari dagokionez, lehen ere esan dugu ubidea inbentariatuta egoteak ez duela esan nahi ubide hori dagoen lursaila titulartasun publikokoa denik, kexagileari (1. eta 3. lurzatietako titularrak) eta administrazio batzarrari helarazi dugun moduan.

Une hartan Zabalgunea XXI sozietateak, Aretxabaletako urbanizazio proiektua egiteaz arduratu zen enpresa publikoak, emandako txostenean honako hau adierazi zen:

“El nacimiento del manantial se produce al sur del casco urbano de Aretxabaleta, frente al almacén propiedad de “Materiales de Construcción Gómez de Segura, S.A.” y a la cota 560,75, más o menos. Las aguas son conducidas por una tajea de piedra de 280 metros con trazado, más o menos rectilíneo, en dirección sur-norte y a través de terrenos particulares hasta el registro indicado en el plano. A este tramo y por el este, se le unía otro canal de la misma naturaleza que posteriormente fue tapiado y desviado a los colectores de saneamiento.

En su trazado final, a partir del registro⁴, las aguas del manantial son conducidas mediante tubo por una tajea de menor tamaño al anteriormente comentado. Tras recorrer una distancia de 85 metros las aguas emanan al abrevadero ubicado al noroeste del casco urbano y a la cota 546,00, más o menos.”

Txosten hori eta zegokion plana aintzat hartuta, esan genuen urak gehienbat jabetza pribatuen bitartez bideratzen direla eta, ondoren, hodia jabetzaren ondoko estoldaren bidez (1. eta 3. finkei dagokie); ez da argi geratu eremu hori

⁴ Este registro es lindante con la finca 4, la tajea lo atraviesa y entra en la finca 2, hasta llegar al abrevadero o fuente.





publikoa edo pribatua den. Uraren tutua bertatik iragateak ez du esan nahi lursaila publikoa denik, oso ohikoak baitira ubide zortasunak. Jabeak titular izaten jarraitzen du, baina eragozpen edo muga horiek onartu behar ditu. Eta, antza denez, horixe bera gertatzen da txostenean aipatzen den ibilguaren lehen zatiarekin.

Halaber, gaineratu behar dugu estolda erreklamatzailaren jabetzatik (2. finka) igarotzen dela, Zabalgunea XXI erakundeak emandako planoaren arabera, eta elementu hori erreklamatzailaren finka ixteko hormatik argi eta garbi banatuta dagoela planoan. Alegia, estolda eta elementu horrek hartzen duen eremua inbentariatuta baldin badaude, zaila da ondorioztatzea hizpide dugun hodiak 1,80 m-ko zabalera duela, inbentariatutako ondasunaren ustezko zabalari buruz lehen egin dugun ondorioari jarraiki, are gehiago txostenak estolda hori aurrekoa baino txikiagoa dela dioela aintzat hartuta. Edozelan ere, kontu hori egiaztatuko behar zatekeen, ez baitirudi herriko iturria hornitzeko iturburu bateko urak halako dimentsioa eduki dezakeenik.

Azkenik, aipatu behar da inbentarioan jasota dagoela ondasunak 40 m-ko luzera duela eta hizpide dugun estoldak, aldiz, 85, aipatu txostenarekin bat. Horrek azalpen bat dauka. Aurkeztutako planoaren arabera, ondasun publikoak ez dio 4. finkari eragiten eta, hala, arraroa da erreklamatzailaren finkari bakarrik eragiten dion ubidearen zatia bakarrik inbentariatzea (hain zuzen, mugakide dituen 1. eta 3. finketan) eta erregistrotik igarotako beste 45 metroak ez inbentariatzea, Zabalgune XXI erakundeko txostenak dioten moduan.

Aurreko hori guztia laburbilduz, zaila da ondorioztatzea 2. finkaren eta 1. eta 3. finkaren artean lursail publikoko zerrenda dagoela –finkok aipatu zerrenda mugakide izango lukete- eta, ondorioz, baita erreklamatzailaren 2. finkari dagozkion eta Jabetza Erregistroan behar bezala inskribatutako mugak aldatzeko azken asmoa ere. Halaber, kontuan hartu behar da estolda, dela administrazio batzarrak dioten ezaugarriekin edo ezaugarririk gabe, jada adierazitako kontuez gain, erabilerarik gabe geratu dela eremua urbanizatzeko proiektua burutzerakoan.

5. Toki erakundeek eskumen handia dute ondare publikoa defendatzean, administrazio publikoek halabeharrez bete beharreko eskumenak. Hori bai, administrazioaren ahalmenak eta, zehazki, jabetza publikokotzat jotzen diren ondasunak defendatze aldera ikerketarako eta jabetza berreskuratzeko ahalmena, pribilegiozko tresnak dira eta ondare publikoa defendatzen dutelako justifikatzen dira, baina ezin dira bihurtu ondasunez jabetzeko bide azkarra, horiek ondare publikoaren parte direla edo izan direla egiaztatu gabe.

Ikertzeko eskumen hori arautzerakoan, Ondasunei buruzko Araudiko 45. artikulua xedatzen du tokiko korporazioek horien jabetzatik ondorioztatzen diren ondasunen eta eskubideen egoera ikertzeko ahalmena dutela, hori jasota ez badago, ondasun eta eskubide horien titulartasuna zehazte aldera. Ikerketarako ekintza horren baliatzea ofizioz erabaki ahal izango da,





korporazioaren edo partikularren salaketaren bidez (araudiko 45. artikulua). Prozedura bera erabiliko da edozein unetan jabari publikoko ondasunen jabetza berreskuratzeko, ikertzeko ekintza udal uziekin bat etorri ondoren (araudiko 71. artikulua).

Jurisprudentziak, eskumen edo ahalmen horien baliatzea zehazterakoan, azpimarratu du espediente horiek edukitza-eskaerara hertsiki mugatuta daudela eta hori behar bezala egiaztatu behar dela jabetza administratiboaren erabateko frogarekin, auzitegi arruntetan sor daitekeen jabariari buruzko edozein jarduera desberdinduta. Hala ere, ezin da saihestu baliabide pribilegiatu horrek – benetako ekintza interdiktalaren baliokidea- premisa bat bete behar duela. Alegia, ikertutako ondasunaren titulartasuna jabari publikokoa "*izan dadila*". Ikertzeko eta jabetza berreskuratzeko ekintza horretarako, jabetza publikotzat jotzen den ondasun baten aurrean gaudelako premisatik abiatu behar gara. Ondasun hori administrazio publikoarena zen, eta jabetza hori legez kanpo asaldatu du horretarako eskubiderik ez duen batek, haren esku dauden agiri eta aurrekariaren arabera.

Azken finean, administrazioak haren eskumenak era egoki eta bidezkoan erabili behar ditu, betiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3. artikulua ezartzen dituen printzipio orokorrei jarraiki, bereziki, fede ona, legearekiko konfiantza eta legeari eta zuzenbideari erabat men egitea dioten printzipioei jarraiki.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

17/2010 GOMENDIOA, uztailaren 12koa, Aretxabaletako Administrazio Batzarrari egina

1. Dagozkion izapideak egin ondoren, "Iturriaren bidezidorra eta ubidea" izenekoari dagozkion ondasunen inbentarioaren idazpena baliorik gabe utz dezan.
2. Dagokionean, gai hau erregulatzen duten legezko araei eta hemen adierazitako gogoetei jarraiki, dagozkion ikerketa-espedientea izapidetu dezan.

